

MERKATARITZA DATUETAN

2015 KO 1. HIRUHILEKOA



2015KO EKAINAK 10

Aurkibidea

1	Salmenten bilakaera.....	3
2	Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera	5
3	Kontsumitzailearen konfiantzaren indizearen bilakaera	9
4	Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera.....	11

1 SALMENTEN BILAKAERA

Tituluak:

- Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 jaitsi ziren 2015eko lehen hiruhilekoan.
- Prezioen eraginik gabe, alegia finkoetan, salmentak %1,1 gehitu ziren.

Eustatek emandako datuen arabera, 2015eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,9 gutxitu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %0,7 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %1,2 nominala jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

	EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA			
	1. HIRUHILEKOA. 2015			
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-0,9	-1,2	1,1	0,0
Araba	-0,7	-2,1	2,8	-0,8
Bizkaia	-1,4	-1,7	0,1	-0,2
Gipuzkoa	-0,1	0,1	1,9	0,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-2,0	-1,7	-1,9	-1,9
Elikagaietan espezializatuta	-5,0	-1,2	-5,2	-2,0
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-0,4	-0,9	-0,1	-0,7
Beste produktuak	2,7	0,8	3,5	0,9
Pertsonen hornikuntza espezializatuta	1,6	-0,1	2,3	0,7
Etxearen hornikuntza espezializatuta	4,1	0,2	4,8	-0,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,6	-1,7	1,5	-0,5
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	6,1	2,1	7,1	3,1
Automoziorako erregaia	-13,7	-5,3	-1,0	-2,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,7	-0,3	1,2	-0,2

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

1.Taula. Iturria: Eustat.

Elikagaien salmenta nominalak %2,0 gutxitu ziren 2015eko lehen hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %2,7 gehitu eta Automobilgintzarako erregaiak %13,7 jaitsi, beti ere 2014ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %5,0 gutxitu zen, elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %0,4. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %6,1 gehitu da; Etxeko ekipamenduan %4,1, Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %1,6 eta Kontsumo beste ondasunetan %0,6.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, nominalki: Bizkaian %-1,4, Araban %-0,7 Gipuzkoan %-0,1.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %1,1 gehitu ziren 2015eko lehen hiruhilekoan; tasa positiboak dituen laugarren hiruhilekoa jarraian

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,2ko gehikuntza erreala izan zuten aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2015eko lehen hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealean ez da aldaketarik izan (%0,0) 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala, %1,9; gainerako produktuetan %3,5eko gehikuntza erreala, 2014ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %1,0ko jaitsiera.

Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-5,2 dugu espezializatuan; Elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %-0,1. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %7,1 gehitu da; Etxeko ekipamenduan %4,8, Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,3 eta Kontsumo beste ondasunetan %1,5.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealean, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Araban %2,8, Gipuzkoan %1,9, Bizkaian %0,1.

2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Tituluak:

- Urte arteko txikizkarien afiliazioen igoera hiru lurralde historiko eta aztertutako zazpi merkataritza udalerrietan.

-Hiletik hilerako alderaketa: aurreko hiruhilekoarekin erkatuz afiliazioen jaitsiera, gabonetako kanpaina osteko ohiko beherakada.

2. taulan 2015ko 1go hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da. Handizkarien sektorean, Arabari dagokionez urtarrilean eta martxoan hazkundea ematen bada ere hiru hilabetekoa aurreko hiruhilekoan baino afiliazio gutxiagorekin bukatzen du. Berdina gertatzen da Gipuzkoan eta Bizkaian, martxoko eta otsaileko hazkundeek ez dute hiruhileko osoko jaitsierak konpentsatzea lortzen.

Txikizkariak zenbateko negatiboak aurkezten dituzte lurralde guztietan. Jaitsierak bereziki esanguratsuak dira urtarrilean, hurrengo hilabeteetan leunduz.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektoreari dagokionez, Araban hiruhileko osoan bilakaera positiboa erakusten du, beste lurraldeetan otsailean baino ez ditu igoerak izaten.

Termino orokorretan, merkataritza sektorerako eta EAE osoa kontuan izanik, hiruhileko honetan afiliazioen gutxitzea eman da, bereziki urtarrilean izandako jaitsieraren ondorioz. Joera hau ohikoa da urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan gabonetako kanpainian ematen den alta eta bajen prozesu ziklikoa kontuan izanik..

LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015KO 1.HIRUHILEKOA

	ARABA	ALDAK.	GIPUZKOA	ALDAK.	BIZKAIA	ALDAK.	E.A.E.	ALDAK.
Handizkariak								
15/01	5.795	%0,82	12.753	-%0,69	20.568	-%0,35	39.116	-%0,29
15/02	5.721	-%1,28	12.736	-%0,13	20.594	%0,13	39.051	-%0,17
15/03	5.743	%0,38	12.786	%0,39	20.515	-%0,38	39.044	-%0,02
Txikizkariak								
15/01	10.496	-%3,07	24.691	-%2,25	46.489	-%2,29	81.676	-%2,38
15/02	10.419	-%0,73	24.583	-%0,44	46.298	-%0,41	81.300	-%0,46
15/03	10.311	-%1,04	24.437	-%0,59	46.228	-%0,15	80.976	-%0,40
Ibilg. eta ord. piezak								
15/01	2.023	%0,20	4.260	-%0,12	6.245	-%0,27	12.528	-%0,14
15/02	2.034	%0,54	4.261	%0,02	6.253	%0,13	12.548	%0,16
15/03	2.039	%0,25	4.234	-%0,63	6.253	%0,00	12.526	-%0,18
Guztira								
15/01	18.314	-%1,51	41.704	-%1,56	73.302	-%1,58	133.320	-%1,57
15/02	18.174	-%0,76	41.580	-%0,30	73.145	-%0,21	132.899	-%0,32
15/03	18.093	-%0,45	41.457	-%0,30	72.996	-%0,20	132.546	-%0,27

2.taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

4. taulan, sektoreka, 2015eko lehenengo hiruhilekorako eta EAeko zazpi merkataritza udalerri nagusientzako, afiliazioen hiletik hilerako bilakaera azaltzen da.

Handizkako sektorean, Irun eta Laudio dira afiliazioetan igoera izaten duten hiri bakarrak.

Txikizkarietara dagokienez zazpi udalerrietan aurreko hiruhilekoan baino afiliazio kopuru txikiagoa erakusten dute, Laudio da martxoan arinki gora egiten duen udalerri bakarra.

Ibilgailu eta ordezkari piezen sektoreak zenbateko desberdinak aurkezten ditu. Gasteizek hilabetez hilabete afiliazioetan igoera duen bitartean, Donostia eta Bilbaok, aurreko hiruhileko datuekin alderatuz, atzera egiten dute. Beste udalerrietan alta eta baja artean fluktuatzen badute ere hiru hilabetekoa aurreko hiruhilekoan baino afiliazio gehiagorekin bukatzen dute.

Termino orokorretan eta merkataritza sektorerako, aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuz, udalerri guztietan ematen da afiliazioen jaitsiera. Irun eta Laudio dira urtarileko jaitsiera garrantzitsuari hobeak aurre egiten dioten udalerriak.

UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015KO 1.HIRUHILEKOA

	GASTEIZ	ALDAK.	DONOSTIA	ALDAK.	BILBAO	ALDAK.
Handizkariak						
15/01	4.414	%0,30	3.665	-%0,60	5.189	-%1,20
15/02	4.348	-%1,50	3.656	-%0,25	5.144	-%0,87
15/03	4.358	%0,23	3.658	%0,05	5.067	-%1,50
Txikizkariak						
15/01	8.428	-%3,16	8.713	-%3,36	13.993	-%2,15
15/02	8.350	-%0,93	8.671	-%0,48	13.947	-%0,33
15/03	8.247	-%1,23	8.545	-%1,45	13.906	-%0,29
Ibilg. eta ord. piezak						
15/01	1.551	%0,13	884	-%0,34	1.382	-%0,29
15/02	1.556	%0,32	875	-%1,02	1.384	%0,14
15/03	1.559	%0,19	874	-%0,11	1.379	-%0,36
Guztira						
15/01	14.393	-%1,77	13.262	-%2,41	20.564	-%1,79
15/02	14.254	-%0,97	13.202	-%0,45	20.475	-%0,43
15/03	14.164	-%0,63	13.077	-%0,95	20.352	-%0,60

	BARAKALDO	ALDAK.	GETXO	ALDAK.	IRUN	ALDAK.	LAUDIO	ALDAK.
Handizkariak								
15/01	603	%0,67	1.043	-%0,10	1.343	-%2,11	108	%5,88
15/02	600	-%0,50	1.041	-%0,19	1.348	%0,37	108	%0,00
15/03	589	-%1,83	1.046	%0,48	1.381	%2,45	107	-%0,93
Txikizkariak								
15/01	4.587	-%2,38	2.082	-%0,53	2.484	-%2,85	623	-%2,81
15/02	4.567	-%0,44	2.066	-%0,77	2.479	-%0,20	621	-%0,32
15/03	4.532	-%0,77	2.049	-%0,82	2.451	-%1,13	626	%0,81
Ibilg. eta ord. piezak								
15/01	373	-%1,32	138	-%1,43	554	-%0,36	104	%0,00
15/02	403	%8,04	142	%2,90	556	%0,36	105	%0,96
15/03	408	%1,24	141	-%0,70	556	%0,00	105	%0,00
Guztira								
15/01	5.563	-%1,99	3.263	-%0,43	4.381	-%2,32	835	-%1,42
15/02	5.570	%0,13	3.249	-%0,43	4.383	%0,05	834	-%0,12
15/03	5.529	-%0,74	3.236	-%0,40	4.388	%0,11	838	%0,48

4. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

5. taulan, 2014-2015 eperako sektoreen urtetik urterako alderaketa biltzen da. Txikizkarien sektorea da zenbateko positiboena aurkezten dituen, udalerriz guztietan afiliazioen hazkundearen ematen baita, bereziki Gasteizen eta Donostian. Handizkarien sektorean datuak ez dira horren positiboak, Gasteizen, Bilbon, Barakaldon eta Getxon %2,50-3,00 inguruko afiliazioen jaitsiera ematen baita. Antzeko egoera ematen da ibilgailu eta ordezko piezen sektorean, Donostian, Bilbon, Barakaldon eta Irunen afiliazioak jaitsi egiten dira, Getxon eta Laudion ez da aldaketarik ematen eta Gasteizen baino ez dira igotzen %3,04ko hazkundearekin.

Merkataritza sektore osoaren bilakaera aztertuz, aurreko urteko datuekin alderatuz udalerriz guztietan afiliazioen igoera ematen dela ikusten da. Nabarmenezkoa da Donostia eta Laudion kasua %3,17 eta % 3,71ko hazkundeekin hurrenez hurren.

UDALERRIAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015KO 1.HIRUHILEKOA

Handizkariak	GASTEIZ	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	4.469	3.634	5.219	605	1.073	1.342	95
2015ko afiliazioak (martxoaren 31an)	4.358	3.658	5.067	589	1.046	1.381	107
Aldakuntza	-%2,48	%0,66	-%2,91	-%2,64	-%2,52	%2,91	%12,63
Txikizkariak	GASTEIZ	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	7.927	8.141	13.702	4.403	2.022	2.447	608
2015ko afiliazioak (martxoaren 31an)	8.247	8.545	13.906	4.532	2.049	2.451	626
Aldakuntza	%4,04	%4,96	%1,49	%2,93	%1,34	%0,16	%2,96
Ibilg. eta ord. piezak	GASTEIZ	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	1.513	900	1.396	419	141	571	105
2015ko afiliazioak (martxoaren 31an)	1.559	874	1.379	408	141	556	105
Aldakuntza	%3,04	-%2,89	-%1,22	-%2,63	%0,00	-%2,63	%0,00
Guztira	GASTEIZ	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2014ko afiliazioak (martxoaren 31an)	13.909	12.675	20.317	5.427	3.236	4.360	808
2015ko afiliazioak (martxoaren 31an)	14.164	13.077	20.352	5.529	3.236	4.388	838
Aldakuntza	%1,83	%3,17	%0,17	%1,88	%0,00	%0,64	%3,71

5. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

3 KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:

- Lehenengo hiruhileko KKA aurreko hiru hilabeteko datuarekin erkatuz %14,6an igo zen. Igoera hau bereziki uneko egoeraren adierazlearen igoeraren ondorioz eman zen, hau igurikimenen adierazlea baino zenbateko handiagoan igo baitzen.
- 2014 urteko lehen hiruhileko datuekin alderatuz, hiruhilabete honetako datuek %32,6ko aurrerapena erakusten dute.

URTEA/ HILABETA	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA	UNEKO EGOERAREN ADIERAZLEA	IGURIKIMENEN ADIERAZLEA
13/04	56,70	37,70	75,60
13/05	50,80	35,80	65,80
13/06	61,80	45,90	77,60
13/07	63,30	47,40	79,20
13/08	68,60	53,40	83,70
13/09	69,80	54,10	85,40
13/10	65,30	51,20	79,50
13/11	72,30	54,40	90,10
13/12	71,00	53,80	88,20
14/01	77,70	62,00	93,40
14/02	71,50	55,00	88,00
14/03	76,30	60,40	92,20
14/04	82,00	66,20	97,70
14/05	84,90	72,20	97,60
14/06	89,30	74,40	104,20
14/07	88,90	77,00	100,80
14/08	87,70	77,00	98,40
14/09	89,30	76,30	102,20
14/10	86,80	74,20	99,30
14/11	83,60	71,20	95,90
14/12	90,60	76,80	104,30
15/01	99,60	85,10	114,10
15/02	99,00	85,70	112,30
15/03	100,40	87,10	113,70

6. taula. Iturria: CIS. Estatu mailako datuak. Lantzea: ikusmer. Azken 24 hilabeteak.


Urtarrileko KKA 99,6 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz 9 puntu gainerik. KKAren ematen den aurrerapausu hau, abenduan gertatzen zen moduan, uneko egoeraren adierazlea 8,3 puntutan handitzen delako eta igurikimenen adierazleak 9,8 puntutan aurrera egiten duelako ematen da. Modu honetan, KKAk azken bi hilabeteetan izandako igoera esanguratsuak kontuan izanik, serie historikoaren maximoetara iristen da, 2005 urteko 98 puntuen gainean kokatuz (orainarte adierazle honek lortutako balio altuena). Hala ere aipatu beharrekoa da adierazlearen máximo honetan igurikimenez pisu handiagoa dutela, serie osoko balio maximoan ere kokatzen direlarik. Uneko egoeraren adierazlea berriz, 2005eko datuari dagokionez, 4 puntu azpitik aurkitzen da.

Aurreko urteko urtarrileko hilabetearekin erkatuz, KKAren aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du. Hazkundeak 21,9 puntu lortzen ditu terminu absolutuetan, uneko egoeraren balioztatzean (+23,1) eta igurikimenean (+20,7) antzeko irabaziak izanik. Hala ere, portzentaje mailan emandako bilakaeraren profila ez da ain homoginoa: KKA %22an igotzen da, uneko egoeraren balioztatzearen %27,1eko eta igurikimenez %18,1eko hazkundearen ondorioz.

Otsaileko KKA 99 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz 0,6 puntu azpitik. KKAREN atzerapauso arin hau igurikimene zenbatespena 1,8 puntutan txikitzen delako ematen da, uneko egoeraren adierazlea 0,6 puntutan handitzen bada ere. Jaitsiera emanda ere, KKA serie historikoaren maximoetan jarraitzen du, 2005ean lortu ziren 98 puntuen gainetik. Aurreko urteko hilabete berdinari dagokionez aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du. KKAREN hazkundeak 27,5 puntu hartzen ditu, terminu absolutuetan uneko egoeraren balioztatzean 30,7ko eta igurikimenean 24,3ko irabaziak izanik. Hala ere, portzentaje mailan emandako bilakaeraren profila ez da ain homogeneoa: KKA %27,8an igotzen da, uneko egoeraren balioztatzearen %35,8ko eta igurikimenean %21,6ko hazkundeen ondorioz.

Martxoko KKA 100,4 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz, 1,4 puntu gainetik. KKAREN emaitz hau adierazlearen seriean maximo berria suposatzen du, lehenengo aldiz 100 punturen gainetik kokatzen baita. KKAREN aurrerapausu hau uneko egoeraren adierazlearen eta igurikimenean adierazlearen igoeraren emaitza da bi adierazleak 1,4 puntutan igotzen baitira. Aurreko urteko hilabete berdineko datuekin erkatuz aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du. Hazkundeak 24,1 puntu lortzen ditu terminu absolutuetan irabazi handiagoak izanik, uneko egoeraren adierazlea 26,7 puntutan handitzen da eta igurikimenean 21,5eko hazkundera ematen da. Portzentaje mailan bildutako bilakaeraren profila oso antzekoa da: KKA %24an handitzen da, uneko egoeraren adierazlea %30,7an eta igurikimenean %18,9an hazten direlako.

Hiruhileko bilakaera oso positiboa dela apiatu beharrekoa da, aurreko hiru hilabetekoan izandako geldialdiaren ondoren igoera garrantzitsuak eman dira. Lehen hiruhileko KKA aurreko hiru hilabetekoarekin alderatuz, %14,6an handitzen da, uneko egoeraren adierazlean igurikimenean baino igoera handiagoak ematen direlarik %16,1 eta %13,6 hurrenez hurren. 2014 urteko lehen hiruhileko datuekin erkatuz %32,6ko aurrerapena ematen da uneko egoeraren ematen den %45,5eko eta igurikimenean izandako %24,3ko hazkundeen ondorioz.



2 Grafikoa. Iturria:CIS. Estatu mailako datuak. Lantzea: Ikusmer.

4 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:

- Azpiko inflazioak %0,3ko igoera jaso zuen berriro. Horrek pentsarazten du petrolio gordinaren bilakaera egonkortzen denean.


- EAEko indizea bide erdian dago espainiar inflazioaren (%-1,3) eta Euroguneko datuaren (%-0,6) artean.

URTEA/ HILABETA	INDIZEA	HILEKO ALDAKUNTZA	AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ	URTEKO ALDAKUNTZA
15/01	102,3	-1,7	-1,7	-1,0
15/02	102,4	0,2	-1,6	-0,8
15/03	103,1	0,6	-1	-0,4

Unitatea: 2011 Oinarria=100

7. taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Iksmer.

Barne eskariaren suspertze horrek ez du eraginik izan oraindik kontsumoko prezioen bilakaeran, duela urtebete zirenen aldean berriro merkatu direlako. Zehazkiago adierazita, urtarrileko KPI indizea %-1,0an kokatu zen, petrolioaren merkatze biziak baldintzatuta. Aitzitik, azpiko inflazioak %0,3ko igoera jaso zuen berriro. Horrek pentsarazten du petrolio gordinaren bilakaera egonkortzen denean, kontsumoko prezioek tasa positiboak berreskuratuko dituztela. Dena dela, tasa horiek oso txikiak izango dira eta Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2,0ko erreferentziaren oso azpitik egongo dira.



3. Grafikoa. Iturria: Eustat. Lantzea: Iksmer.

Kontsumoko prezioak %1,0 jaitsi ziren euskal autonomia erkidegoan aurtengo lehen hilekoan 2014ko epealdi berarekin alderatuta, INEk argitaratu dituen datuen arabera. Beraz, 2014ko amaieran zegoen datua hiru hamarren beherago kokatu da orain. Horiek horrela izanda, KPI indizeak beheranzko joera luzatu zuen eta minimo historikotan jarraitu zuen. Halaber, lehen aldia da 1979tik, urte horretan hasi baitzen argitaratzen EAEko KPIa, urtarril batean prezioak jaisten direla. Europako herrialdeekin

alderatuta, EAEko indizea bide erdian dago espainiar inflazioaren (%-1,3) eta Euroguneko datuaren (%-0,6) artean.

KPI TALDE NAGUSIAK			
URTE ARTEKO ALDUKUNTZA TASA - 2015ko URTARRILA			
	Euskadi	Espainia	Euro Gune
INDIZE OROKORRA	-1,0	-1,3	-0,6
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	-0,5	-0,4	-0,5
Alkoholodun edariak eta tabakoa	0,4	0,9	1,7
Jantziak eta oinetakoak	0,0	-0,1	0,2
Etxebizitza	-0,1	-0,4	-0,7
Etxeko hornidura	0,2	-0,5	0,1
Medikuntza	-0,2	-0,1	0,7
Garraioak	-7,0	-7,7	-4,2
Komunikazioak	-4,6	-4,7	-2,1
Aisia eta kultura	-0,2	-0,7	-0,6
Irakaskuntza	2,6	1,3	0,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,2	0,6	1,3
Beste batzuk	1,7	1,7	0,7

8. Taula. Iturria: EIN.

Berrito ere, kontsumoko prezioen beherakada lotuta egon zen lehen energia iturri nagusiaren, hots, petrolioaren, merkatzera, eta, neurri txikiagoan, gorabehera handiak izaten dituen beste produktu baten bilakaerara ere, hau da, landu gabeko elikagaien portaerara. Hala eta guztiz ere, azken asteetan Brent motako upelaren salneurriaren merkatzea galgatu da eta garestitze txikia hasi da ezagutzen, oraindik nazioarteko merkatuetan petrolio gordinaren eskaintza gehiegizkoa den arren. Zehazkiago adierazita, lehenagorik salneurria 60 dolarren inguruan ibili da otsailean, urtarrilean 50 dolarren beherago kokatu zen bitartean. Horri gehitzen badiogu kontsumoa bizi den suspertze bizkorra, pentsatzekoa da epe labur samar batean prezioen beherakada zuzenduko dela eta urte arteko aldakuntza tasa positiboak berreskuratuko direla.

Azpiko inflazioaren datua, petrolioaren eta landu gabeko elikagaien eragina indize orokorretik kentzen baitu, ez zen aldatu urtarrilean eta %0,3an kokatu zen berriro urte arteko tasan. Beraz, inflazioaren gune egonkorrena ez da lehenago aipatu den KPIaren urtarrileko jaitsieraren erantzulea. Aitzitik, hondar inflazioa, gorabehera handienak izaten dituzten produktuak biltzen dituena, %-6,9an kokatu zen, aurreko balioen oso azpitik. Adierazle horren bi osagaiek beren prezioak murriztu zituzten arren, erregaien merkatzea erabakigarria izan zen, %15 baino gehiago merkatu baitzen.

Indize orokorra osatzen duten talde guztietatik, garraioak hauteman zuen gehien petrolio gordinaren merkatzea. Izan ere, garraioaren urte arteko tasa bi puntuz jaitsi zen urtarrilean, aurreko hilekoko %-5,0tik oraingo %-7,0ra. Petrolioaren bilakaerak etxebizitzaren taldeari ere eragin zion, beraren urte arteko tasa zazpi hamarren beheratu baitzen, abenduko %0,6tik urtarrileko %-0,1era, kasu horretan berogailuetarako gasolioaren eta gasaren salneurrien jaitsierak baldintzatuta. Kontuan hartu behar da gasaren prezioa, neurri handi batean, petrolio gordinarenera lotuta dagoela. Komunikazioak (%-4,6) eta aisia eta kultura (%-0,2) ere beren prezioak merkatu zituzten, baina jaitsierak zertxobait leundu zituzten. Lehen kasuan, telefonia zerbitzuen salneurriak aurreko urtean baino gutxiago jaitsi zirelako eta bigarrean bidaia antolatuen prezioak aurreko urtean gehiago murriztu zirelako. Azkenik, medikuntza (%-0,2) eta janariak eta alkoholik gabeko edariak (%-0,5) ere merkatu egin ziren.